

1992ko URRIAREN 13ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamabiko urriaren hamahiruan, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea, Ramon Bengoetxea Altuna eta Iñigo Arreseigor Bengoetxea; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Idazkariak, aurreko saioen aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

ITURRI AURRE ETXEAREN BALORAZIOA:

Ikusirik, Lizartzako Laguntzako Arauetako 3. Arearen ejekuzioarekin zerrikusia duen, tramitatutako Derrigorrezko Desjabetza Espedientea, konkretoki, 7 zenbakia duen finka eta Iturri-Aurre Etxeari dagokiona.

Ikusiz, 1.992ko Martxoaren 23ko datakin, Jon Arregi Uranga Arkitektoak luzatutako Tasazio-Txostenak abalatu, Jabeen Komunitatearen izenean, Jose M^a Bengoetxea Garin Jaunak, formulatu duen Balioespen Oinarria, zeinean, Desjabetza objektu diren, Eskubide eta Ondasunen, hau da, 470,80 m²ko lurzatia eta bertan dagoen, Iturri-Aurre etxearen, balio bateratua, 16.485.769,- peztatkoa dela agertzen da.

Ikusiz, balorazioaren banaketa hau dela:

Eraikuntzaren Balorazioa	2.145.323,- Pezta
Eraikuntzaren gain, lurraren erreper- kutsioaren Balorazioa	7.724.400,- Pezta
Lurraren Balorazioa	6.616.046,- Pezta

GUZTIRA 16.485.769,- Pezta

Eraikuntza eta Lurraren Hirigintza balorearen egoizpen bikoitza, jabegoak, bere Balioespen Oinarriari batutzen dion, Tasazio-Txostenaren 9. orrialdean egiten duen bezela, ezin daiteke onartu. Areako Higintz Aprobetxamenduan, lurraren balioa erreperkutuaz, edo berdin izanik, beraren Hirigintz Balorazioarekin batera, Eraikuntzaren Balorazioan berriro, merkatuko kriterioren arabera, Eraikuntzan, Lurraren erreperkutsioari balorea aplikatuz, bertan, Hirigintz Balioaren Erreperkutsioa sartuta bait dago.

Aipatzekoa da, Jabegoaren Tasazio-Txosteneko 5. Epigrafean (8. Folioa), aplikatutako kriterioetan, 1.976 Lurraren Legearen artikulua aplikatzen dituela, eta hau, 8/1.990 Legearekin derogatua dagoela.

8/1.990 Legearen 81. artikulua, 83. erlazionatuz, dioenarekin ados:

- a) Lurraren balorazioa, Hirigintz Edukina kontutan hartuaz egingo da.
- b) Eraikuntzaren balorazioa, bere birjarpen kostuen arabera, aintzinasuna, kontserbazio eta indarrean dagoen araudiarekin, konformitatea duen ala ez, kontutan hartuaz.

Hau dena kontuan hartuaz, Eraikuntzaren Balorazioa eta Tasazioaren arabera, jabegoak ezarritako depreziazio indizeen aplikazioak, aintzakotzat hartzea daude.

Lurraren Balorazioa, 6.616.046,- pezta eta, Eraikuntzaren Balorean erreperkutsioa, 7.724.400,- pezta, aintzakotzat hartu ezinak dira, zeren eta, Lurrarekiko Hirigintz Balorazioaren kontzeptua bikoiztuz gainera, bi kasuetan gaizki kalkulatu daude. Horretarako, Lurraren Balorazio berri bat formulatzen da, 470,80 m².kiko, jabegoak ondaretu lezakeen, Hirigintz Aprobetxamendua sartuaz, Pilar Amenabar Arkitektoak eginiko, 1.736.439,- peztatako Balorazio-Txostenaren arabera.

EBAZTEKO PROPOSAMENA

Lehena.- Derrigorrezko Desjabetza Legearen 30. Artikulua eta Pilar Amenabar Arkitektoaren Balorazio Txostenaren arabera, eraikuntzean eskubidea duten titular guztien izenean, Jose M^a Bengoetxea Garin Jaunak, Balioespen Orrian formulatutako, 16.485.769,- peztatako balorazioa ezetsitzen da.

Eraikuntza edo Etxeari dagokion, jabegoaren balorazioa baliozkoa onartuaz, Balioespen Orria luzatzen da, honela gelditzen delarik:

Eraikuntzaren Balioa 2.145.323,- Pezta
Lurraren Hirigintz Balioa .. 1.736.439,- Pezta

GUZTIRA 3.881.762,- Pezta

=====

Bigarrena.- Udalaren Balioespen Orri honen berri, Jabegoari emango zaio, honek, 10 egunetan, onartu edo atzera botatzea izango duelarik. Bigarren kasu honetan, alegazioak egiteko aukera izango du, hoiek justifikatzeko, beharrezko iruditzen zaizkion frogak aurkeztuaz.

Jakinaraztea, Udalaren Balorazioa onartzen ez bada, espedientea, epe barruan aurkeztutako alegazio eta frogekin batera, Desjabetzaren Lurraldeko Epaitegira bidalia izango dela.

Ebazpen proposamena, aho batez onartu da.

"LIZARTZAKO UDALETXEAREN BERRIKUNTZA" OBREN ADJUDIKAZIOA:

Lizartzako Udaletxearen Berrikuntza obren adjudikazioa egiteko, 3 etxeei bidali zitzaizen aurrekontua eta proiektua, beren eskeintzak egin zitzaizkion.

Horren arabera, 3 kontratistek aurkeztu dituzten beren eskeintzak, eta hauek dira:

AIERBE ERAIKUNTZAK	20.719.935,- Pezta
OTEGI ERAIKUNTZAK	16.935.164,- Pezta
URKIZAR ERAIKUNTZAK	16.651.262,- Pezta

Urkizar Eraikuntzak, bere eskeintza epez kanpo aurkeztu duenez, ez da kontutan hartzen.

Aurkeztutako beste bi eskeintzak teknikoekin aztertu ondoren, OTEGI ERAIKUNTZAK aurkeztutako onartzea proposatu da.

Honenbestez, ikusirik, Otegi Eraikuntzak, Udal honetan aurkezturiko, 16.935.164,- peztatara igotzen den eskeintza.

Ikusirik, Udaletxearen Berrikuntzako obren adjudikazioari buruzko espediente orokorra.

Gaia eztabaidatuz gero, Udalbatzak aho batez, zera erabaki du:

- a) OTEGI ERAIKUNTZARI adjudikatzea, Lizartzako Udaletxearen Berrikuntzako obrak, 16.935.164,- pezetatan, berak aurkezturiko eskeintzako neurritan, Pilar Amenabar Arkitektoak osaturiko proiektuaren arauera egiteko eta Udalbatza honek, 1.992ko Uztailaren 23an egindako bilkuran onarturiko Baldintza Ekonomiko Administratibo zerrendapean.
- b) 1.992ko Urriaren 19ko, eguerdiko ORDUBATAk izendatzea kontratua izenpetzeko.
- d) Erabaki hau adjudikatariorari adieraztea eta kontratua izenpetzerako baldintza ekonomiko administratiboko 10. atalean agertzen denaren arabera, obraren exekuzioa garantziatzeko 677.407,- pezetako bermea Udal honetan jartzeko eskatzea.

Aldi berean, baita ere, UDALETXEAN KALEFAZIOA jartzeko adjudikazioa egiteko, beste 3 etxeei bidali zitzaien aurrekontua eta proiektua, beren eskeintzak egin zitzaten.

Horren arabera, 3 etxeek aurkeztu dituzte beren eskeintzak, eta hauek dira:

BEROGAS	3.105.000,- Pezta
TARTE	5.014.000,- Pezta
CLIMAXVIC	5.666.634,- Pezta

Aurkeztutako hiru eskeintzak teknikoekin aztertu ondoren, BEROGAS Etxeak aurkeztutakoa onartzea proposatu da.

Honenbestez, ikusirik, BEROGAS Etxeak, Udal honetan aurkezturiko, 3.105.000,- peztatara igotzen den eskeintza.

Ikusirik, Udaletxearen Berrikuntzako obren adjudikazioari buruzko espediente orokorra.

Gaia eztabaidatuz gero, Udalbatzak aho batez, zera erabaki du:

- a) BEROGAS Etxeari adjudikatzea, Lizartzako Udaletxean Kalefazioa jartzeko obrak, 3.105.000,- peztatan, berak aurkezturiko eskeintzako neurritan, Pilar Amenabar Arkitektoak osaturiko proiektuaren arauera egiteko eta Udalbatza honek, 1.992ko Uztailaren 23an egindako bilkuran onaturiko Baldintza Ekonomiko Administratibo zerrendapean.
- b) 1.992ko Urriaren 19ko, eguerdiko ordubata izendatzea kontratua izenpetzeko.
- d) Erabaki hau adjudikatariorari adieraztea eta kontratua izenpetzerako baldintza ekonomiko administratiboko 10. atalean agertzen denaren arabera, obraren exekuzioa garantizatzeke, 124.200,- Pezetako bermea Udal honetan jartzeko eskatzea.

Baita ere, Lizartzako Udaletxearen Berrikuntza, eta Kalefazio jartzeko obrak aurrera eramateko, Aparejadorea izendatu behar denez, Pilar Amenabar Arkitektoak proposatutako, 446 zki.dun IMANOL IRASTORZA IRIBAS, Kolegiatua, izendatzea, aho batez onartu da.

LIZARTZAKO UDALAREN "NARBAITZU" ONURA PUBLIKOKO 71 zk. MENDIAN EGUR PROBETXAMENDUAREN ADJUDIKAZIOA

1.992ko Urriaren batean, ospatu zen, 1.992ko Irailaren 7an, 169 Zki.ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, Lizartzako Udalaren "Narbaitzu" Onura Publikoko 71 zk. mendian, Egur probetxamendurako enkantea.

Enkante horretara, bi eskeintza aurkeztu ziren, eta hauek dira:

MADERAS ALMIRANTE, S.A.	857.800,- Pezta
PEDRO ARROSPIDE	1.101.000,- Pezta

Aurkeztutako eskeintza hoiak aztertuz gero, Lizartzako Udalaren "Narbaitzu" Onura Publikoko 71 zk. mendian Egur Probetxamendua, 1.101.000,- pezetatan, PEDRO ARROSPIDEri adjudikatzea proposatu da.

Proposamena, aho batez onartu da.

MAASTRICHTKO TRATATUARI BURUZKO ERREFERENDUMAREN ALDEKO MOZIOA:

Nabarmena da nolako jarrera antidemokratikoaz ari den Gobernu espainola gai hau eramaten, informazio egiazkorik eta osorik eza (edozein eratakoa) delarik ezaugarri nagusia, Europa eraikitzeke prozesu honek suposatzen duena eta dakartzan ondorioak ezkutatzeko asmoz. Horrekin batera, erabat antidemokratikotzat jo behar da ere prozesuaren berrespen guztiak eta bakoitza gauzatzeko erabiltzen den metodoa (bai haseran, 1.986ean, Erromako Tratatuaren sartzekoan zein orain, Maastrichteko Tratatuaren aurrean) Herriari

azken hitza berariaz kentzen zaiolarik eta zehatzago Euskal Herriari Europa eraikitzeke eredu honetan edo beste alternatibo batean partehartzeari buruzko erabakia, azken batez, herriari iseka eginez eta demokrazia erasotuz.

Gobernu espainolaren inposaketaz, 1.986ean, Hego Euskal Herria Europako Ekonomi Elkartean sartua izan zenetik, gure herriari egoera horretatik eratorria den politika aplikatzen zaio, gizarte, ekonomia eta politika mailan ondorio oso garrantzitsuak dituelarik. Are gehiago, integrazio hori izan da PSOE Gobernuak aprobaxatu duena, Hego Euskal Herriaren aurka ezartzen duen zigor ekonomikoa areagotzeko.

Kontutan izanik, "subsidiaritatearen printzipioa" --Estatuek Elkarteari egiten dioten subiranotasun emate gisa ulertua--, errealitate bat, non Estatuaren nagusitasuna gerozta handiagoa den, estaltzeko saioa baino ez dela.

Kontutan izanik ere, "erabaki amankomuna" kontzeptuaren xedea --aldaketa instituzionalen barruan ulertua-- Estaturuek erabakiak errazago har ditzaten dela, Europar Parlamentuak testimonio-mailan dirauelarik horrela.

Kontutan izanik, nazio-errealitateen ez-onartze politikoak "de facto" ukatzen duela Euskal Herriaren existentzia eta autodeterminatzeko duen eskubide unibertsala.

Kontutan izanik, Europa eraikitzeke egungo eredutik eratorzen diren egoeren garrantzia eta, ondorioz, gure herriarentzat horren arazo garrantzitsu bat buruzko berri izan eta erabaki ahal izateak duen garrantzia.

HERRI BATASUNAK UDAL honetako OSOKO BILKURARI eskatzen dio erabaki hauek har ditzala:

- 1.- Maastrichteko Tratua ezetsi edo berresteko tresna den heinean, erreferenduma burutu dadin eskatzea, Euskal Herriak era aske eta irekian erabakitzerik izan dezan.
- 2.- Biztanlego osoari Maastrichteko Tratuei buruzko informazioa emateko

aurrez kanpaina bat egitea, horretarako beharrezko fondoak egokituko direlarik.

- 3.- Gobernu espainolari erabaki honen berri ematea dagozkion ondorioetarako.

Maastrichteko Tratatuari buruzko erreferendumaren alde, Herri Batasunak aurkeztu duen mozioa, aho batez onartu da.

ALKATETZAREN DEKRETUAK

TERE ZINKUNEGI AGIRRE Andreari, Kale Nagusia, 29an dagoen etxearen fatxada pintatzeko, baimena eman zaio.

MATIAS OLARIAGA BELDARRAIN Jaunari, Ainene Berri, 4. Ezk.ean, leihoen aldaketa egiteko, aluminiozko txuriak jarriaz, baimena eman zaio.

M^a LUISA BARRIOLA ARRATE Andreari, Kale Nagusia, 13an dagoen etxearen fatxada pintatzeko, baimena eman zaio.

IGNACIO JUAN JAMBRINA Jaunari, Plaza Aurre, 3. Esk.an leihoen aldaketa egiteko, aluminiozko txuriak jarriaz eta, etxeko bainu gela konpontzeko, baimena eman zaio.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak direnean.